



BABY'S SITE

"ZURE LASAITASUNA, HAIEN DIBERTSIOA"

Gure taldea Emma, Garazi, Nagore eta Oihan osatzen dugu, Francisco de Vitorian haur hezkuntzako ikasleak gara, eta elkarrekin lan egin dugu Baby's site izeneko proiektu berri honetan.

Zuek ere ohartu al zarete gizartean guraso izatearen inguruan gero eta beldur handiagoa dagoela? Beldur hori murriztu eta desagerrarazi daiteke, eta hori da gure enpresaren helburu nagusietako bat!

Baby's site enpresan hainbat zerbitzu eskaintzen ditugu, hala nola formakuntzak, aholkularitzak, informazio taulak, artikuluak, adituekin elkarrizketak, komunikazioa lantzeko programak, tailerrak, galdetegiak, gidak, deskargatzeko plantillak (egutegi eta ordutegi pertsonalizatuak) eta foroak, non gurasoek euren esperientziak eta aholkuak partekatu ahal izango dituzten.

Gaur egun, gure enpresa formakuntzan zentratuta dago, bai online bai presentzial. Formakuntza hauek, egokitzen bizi duten gurasoentzat bideratuak izango dira, batez ere lehenaldiko gurasoentzat. Helburua da haien zalantzak, kezak, gatazkak eta antzekoak gutxitu edo desagerraraztea, euren eguneroko bizitza errazteko eta auto-konfiantza indartzeko.

Enpresa honen sorrerak eta proiektuak aukera eman digu hainbat ikuspegi eta ezagutza integratzeko, eta horrek nabarmen aberastu du azken emaitza. Helburu nagusia ikuspegi kritiko eta gogoetatsu sustatzea da, haurraren garapena ulertzen laguntzeaz gain, gurasoei beren rolak modu positiboan eta seguruagoan bizitzeko baliabideak eskaintzea.